



Osakidetza

Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Unitatea

**ARABAKO OSASUN
MENTALEKO SAREA**



ZER DA HAUR ETA GAZTEEN OSASUN MENTALEKO UNITATEA (HGOMU)?

- ❑ **Arabako Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Unitateak** osasun mentaleko arazoak dituzten eta Arabako lurraldean erroldatuta dauden **18 urte baino gazteagoak diren** pertsonak artatzen ditu.
- ❑ Aiara Aranean bizi direnak Laudioko Osasun Mentaleko Zentroan artatzen dituzte.
- ❑ **Taldea** psikiatriako, psikologia klinikoko, osasun mentaleko erizaintzako, gizarte laneko eta administrazioko langileek osatzen dute.
- ❑ **Unitatea irekita dago astelehenetik ostiralera 8etatik 15etara**, eta lehenengo kontsulta eskatzeko, hitzordua aldatzeko eta informazio orokorra jasotzeko jendearentzako arreta ordutegia 9etatik 14etara da.

NOLA JO KONTSULTETARA?

- ❑ **Kontsulta profesionalak aurretiko hitzorduaren sistemaren bidez bakarrik hitzartu daitezke.** Gure zentroan tratamendua jasotzen ari diren pazienteen larrialdiak soilik onartzen ditugu eta 8etatik 15etara bakarrik. 15etatik aurrera eta larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan, horiek Santiagon egoitza duen Arabako ESko larrialdietako zerbitzuan artatzen dira.



- ❑ **Unitatera lehen mailako osasun-zentrotik bideratua sartzen da**, haurra edo nerabea behar bezala baloratu ondoren. Era berean, larrialdietako zerbitzuetatik eta beste espezialitate mediko batzuetatik bideratutako kasuak onartzen ditugu.
- ❑ **Kontsultarako eskabidea adingabekoaren gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute**, edo pazienteak berak 16 eta 18 urte bitartekoa bada, goian aipatutako zerbitzu medikoaren deribazio-txostena erantsiz.



NOLA EGITEN DUGU LAN HGOMUN?

❑ **Lehenengo elkarrizketa edo harrera-kontsultak,** osasun mentaleko espezialista den erizainak egiten duenak, pazientea bertaratzea eskatzen du, eta baita gurasoak edo legezko tutoreak ere 16 urte baino gutxiago dituzten haurrak direnean.

❑ Lehenengo elkarrizketa horretan, honako informazio hau jasoko da: kontsultaren arrazoia, aurrekari pertsonalak eta familiarrak, aurretiko tratamenduak eta familian, gizartean eta eskolan duen egoera. Interes handikoa da aurretiko txosten mediko edo psikologikoen eta eskolako kopia izatea, eta baita aurretik hartu izan duen edo egun hartzen duen edozein motatako medikazioaren zerrenda zehatza ere.



❑ **Jarraipena edo ondorengo kontsultak** unitatearen talde asistentzialaren bilera espezifikoetan erabakitzen dira, harrera-kontsultan lortutako informazioa oinarri izanik. Aipatutako bileretan, tratamendurik onena egiteko egokiak diren terapeutak (psikologo klinikoa edo psikiatra) ezartzen dira. Horiek, beharrezkoa denean, lehen mailako medikuarekin harremanetan jarri ahalko dira.

❑ **Tratamenduan zehar,** medikazioa agintzea batzuetan beharrezkoa da asistentzia egoki bat eskaintzeko. Betiere taldearen mediku psikiatra bat arduratuko da.

❑ **Psikoterapiako tratamendua** arazo psikikoak hobetzera zuzendutako tratamendu-metodo bat da, lankidetzan eta komunikazioan oinarritzen dena (hitzaren, jolasaren edo adierazpen grafikoaren bidez).



ZER DA HAUR ETA GAZTEEN EGUNEKO OSPITALEA?

- ❑ Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalea (HG-EO) 6 eta 18 urte artean izan eta nahasmendu mental larria (NML) duten adingabeei zuzendutako eremu terapeutikoa da. Tratamendu espezifiko modalitate honek aukera ematen du anbulatorioan egin daitekeena baino intentsiboagoa den tratamendua eskaintzeko.



- ❑ HG-EOan hainbat baliabide terapeutiko erabiltzen dira (banakako terapia, talde terapia, familia terapia, harremanen psikomotrizitatea, tailerrak, hezkuntza-jarduera, aisialdiko jarduera eta abar). Modalitate anitzeko tratamendu-mota hori parte hartzen duten profesional ezberdinen diziplinartekotasunean oinarritzen da. Era berean, adingabeen hezkuntza-beharrei erantzuteko pedagogia terapeutikoko irakasle bat du.

- ❑ Baliabide horretara deribazioa HGOMUren terapeutek egiten dute beti.



ASISTENTZIAKO EGIAZTAGIRIAK

Adingabekoa kontsultara laguntzen duten helduek administrazioan asistentzia-egiaztigiri bat eska dezakete. Eskola-ingururako asistentzia-egiaztigiriak ez dira gure unitatearen erantzukizuna, ikaslearen gurasoek edo tutoreek egin eta entregatu behar dituztelako.

IRAKASKUNTZA

Unitate hau Arabako eremu sanitarioaren irakaskuntza-zentro kolaboratzailea da.

Horrek esan nahi du, batzuetan, gurekin lan egiten dutela graduondoko prestakuntza egiten ari diren psikiatrek, psikologoek edo osasun mentaleko erizain eta gizarte langileek.




TXOSTENAK ESKATZEA

Idatziz egingo da. Eskola-inguruan laguntzak eskatzera zuzendutako txostenei dagokienez, aipatu behar dugu ikaskuntzaren arazoen balorazioa eta arreta ez dagoela Osakidetzako zerbitzu asistentzialen barruan. Hori dela eta, horien hautematea, ebaluazioa eta laguntza-baliabideak ematea hezkuntza-inguruaren eskumena da.

KONFIDENTZIALTASUNA

Osasunaren profesional guztiok sekretu profesionala mantendu behar dugu.




**Haur eta Gazteen
Osasun Mentaleko
Unitatea /
Unidad de Salud Mental
Infanto-Juvenil**

HAUR ETA GAZTEEN OSASUN MENTALEKO UNITATEA

Vitoria-Gasteizko Olagibel Kaleko 31. zenbakian dago,

Olagibeleko Anbulatorioko 5. solairuan.

Harremanetarako telefonoa: **945 277 711**





Gure interesa ahalik eta arreta onena eskaintzea da; beraz, sortzen zaizun edozein zalantza kontsulta ezazu eta egokia deritzozun edozein iradokizun egin ezazu.